KOSTUEN KONTABILITATEA. 2018.-ko Ekaina

TEORIA

ARRAZOITU ITZAZU ERANTZUN GUZTIAK

Barne kontabilitatea- Kanpoko kontabilitatea

1. ¿Zer dio Espaniako kontabilitate araudiak honi buruz?

Kostu Motak

2. Aipa ezazu zein kostu mota diren, ihardueraren arabera (finkoa, aldakorra edo mixtoa), bere egozpenaren arabera (zuzena ala zeharkakoa produktuei/ zuzena ala zeharkakoa sailei), kostu kontzeptu hauek:

    a. Enpresa guztia dagoen eraikuntzaren, Amortizazioa.

    b. Lehengaien Kontsumoa.

    c. Ekoizten dituen produktuen arabera, kobratzen duen, langile baten kostua.

    d. Produktu bukatuak banatzen dituen furgoneta baten Amortizazioa.

    e. Argindar kostua

Kostu Egiturak

3. Enpresa batek, bi produktu bukatuekin (A eta B) lan egiten ba du, azal ezazu Direct-Cost Aurreratuaren bitartez Emaitzaren taula.

Kostu Standard-ak

4. a) ¿Arrazoi berdinak eragin al dezake Esku-Lan Zuzenaren desbideraketa Tekniko eta Ekonomikoa? Baiezkoa ba da erantzuna, jar ezazu adibide bat, esan zein den arrazoia, nola eragingo lioken desbideraketei kasu bakoitzean eta Standard-a aldatuko zenukeen hurrengo ekitaldirako.

b) ¿ Desbideraketa guztiak aztertzen al dira? ¿Zergatik?

Kostu Historikoen, 1. Ariketa

Enpresa batek hilabetean, 2 produktu mota (X eta Y) ekoiztu eta saltzen ditu, datu hauek bildu ditugularik:

Kontzeptuak	X Produktua	Y Produktua	Totalak
Aurrikusitako Iharduera	1.000 u.f.	500 u. f.	
Benetazko Iharduera	800 u. f.	550 u. f.	
KA (H+E) zuz	80.000 €	22.000 €	
KA (H+E) zeh			25.500 €
KF (H+E) zuz	50.000 €	40.000 €	
KF (H+E) zeh			22.950 €
Merkaturatze K.Aldakorrak	5 €/u. f.	5,5 €/u. f.	
Merkaturatze KF zuz	20.000 €	10.000 €	
Merkaturatze KF zeh			30.000 €
Administrazio Kostuak			60.000 €
Salmentak	600 u. f.(400 €/u. f.)	500 u. f. (500 €./u. f.)	

KA (H+E) zuz: Hornikuntza eta Eraldaketako, Kostu Aldakor Zuzenak
KA (H+E) zeh: Hornikuntza eta Eraldaketako, Kostu Aldakor Zeharkakoak
KF (H+E) zuz: Hornikuntza eta Eraldaketako, Kostu Finko Zuzenak
KF (H+E) zeh: Hornikuntza eta Eraldaketako, Kostu Aldakor Zeharkakoak
Merkaturatze KF zuz : Merkaturatze Kostu Finko Zuzenak
Merkaturatze KF zeh : Merkaturatze Kostu Finko Zeharkakoak

KA (H+E) zeharkakoak, produktu bakoitzarekin lan egindako orduen arabera banatzen dira: 800 h., X produktuak egiten erabili dira eta 900 h., Y produktuak egiten.

KF (H+E) zeharkakoak, ekoiztutako produktu kopuruaren arabera, banatzen dira.

Eskatzen da:

1. Egitura Funtzionala, kostu finkoen egozpenarekin erabilita; X eta Y produktuen, ekoiztutako produktu bakoitzaren kostua kalkulatzea.
2. Produktu bakoitzaren eta enpresaren emaitza kalkulatzea, aurreko kostu eredua jarraituz.
3. Bukaerako izakinen baloraketa.
4. Emaitzak eta Bukaerako Izakinen lotura aipatu.

Kostu Historikoen, 2. Ariketa, Gutxiketak

Enpresa batek bi mota desberdinetako kandelak ekoizten ditu (N eta S).

Hilabete baterako ematen dizkiguten datuak hauek dira:

- Argizari Lehengaiaren Aurrez kalkulaturiko gutxiketak: 20 kg. (12 kg., N produktuarentzat eta besteak, S- rentzat).
- N produktuaren Aurrez kalkulaturiko gutxiketak : 80 kandela.
- S produktuaren Aurrez kalkulaturiko gutxiketak : 40 kandela.
- Argizari Lehengaiaren Hasierako Izakinak: 150 kg. (10 euro/kg).
- N produktuaren hasierako izakinak: 50 kandela (5 euro/bakoitzeko).
- S produktuaren hasierako izakinak: 50 kandela (8 euro/bakoitzeko).
- Argizari Lehengaiaren Erosketak: 1.380 kg (9,9 euro/kg).
- N produktuaren ekoizpena: 3980 kandela.
- S produktuaren ekoizpena: 2.000 kandela.
- N produktu bat egiteko, 200 gramo Argizari Lehengai behar dira.
- S produktu bat egiteko, 300 gramo Argizari Lehengai behar dira.
- Kandelak ekoiztearen kostua (lehengaiaz gain): 28.000 euro, jakinik S produktu bakoitza, N produktu bakoitza baino %50 a gehiago kostatzen dela.
- Merkaturatze kostuak: Finkoak: 1.500 euro.
- Merkaturatze kostuak: Aldakorrak:0,5 euro/ saldutako N kandela bakoitzeko.
  0,8 euro/ saldutako S kandela bakoitzeko.
- Administrazio Kostua: 5.873 euro.
- Bukaerako Izakinak: Argizari Lehengaiak: 120 kg.;
  N produktuak: 20 kandela; S produktuak: 5 kandela.
- N produktuaren Salmenta: 3950 kandela (12 euro/bakoitzeko).
- S produktuaren Salmenta: 2000 kandela (18 euro/bakoitzeko).

-

<u>Eskatzen da:</u>

1) Enpresako inbentarioa unitate fisikoetan: 3 izakinen gutxiketak; aurrez, benetan eta gerorakoen artean, bereiztuz.
2) Enpresako inbentarioa unitate monetarioetan: LIFO, ba da irteeratako erizpidea.
3) Egitura Funtzionalaren bitartez, N eta S produktuen, bakoitzeko ekoizpen kostua.
4) Produktu bakoitzaren marjenak eta emaitza.

3. Ariketa- Standard-ak

Enpresa batek datu hauek eman dizkigu:

Espero den ekoizpena: 20 produktu bukatu egiteko asmoa du eta bere kostuak hauek lirateke:

- 20 kg. "A" lehengai (500 €/kg).
- 30 kg. "B" lehengai (300 €/kg).
- 15.000 € Hornikuntza Gastu Bereziak.
- 30 ordu Esku-Lan Zuzen, (finkoak 5.000 € eta aldakorrak 30.000 €).

Benetako datuak:

- A Lehengaiaren Hasierako Izakinak: 3 kg.
- B Lehengaiaren Hasierako Izakinak: 10 kg.

- A Lehengaiaren Erosketak: 10 kg. (460 €/kg.) eta 13 kg. (510 €/kg.).
- B Lehengaiaren Erosketak: 37 kg. (330 €/kg.).
- A Lehengaiaren Bukaerako Izakinak: 5 kg. eta de B-renak: 7 kg.
- Ekoizpen Bukatua: 25 unitate.
- Bideango Ekoizpena: 5 u. f. (bakoitzak, lehengaiaren %100-a eta Esku-Lan zuzenaren % 60-a darama).
- 20.000 € : Hornikuntza Gastu Bereziak.
- 32 ordu: Esku-Lan zuzena, (Finkoa 6.000 € eta Aldakorra 40.000 €).

OHARRA: Hornikuntza Gastu Bereziak, lehengaien diruzko kontsumoren arabera banatuko dira.

Eskatzen da:

1) Ekoizpen kostu Standard-a kalkulatzea.
2) **Desbideraketa guztietan, zer gertatzen den, HITZEZ AZALTZEA, azalpenik gabe, EZ DUTE EZER BALIO.**
2a) A eta B lehengaien desbideraketak: prezioetan eta kopuruetan.
2b) Hornikuntza Gastu Berezien desbideraketa globala.
2c) Esku-Lan Zuzenaren desbideraketa Tekniko eta Ekonomikoa, baita ere . ihardueran, aurrekontuan, tasetan eta mixtoa.